



GIPUZKOAKO SENITARTEKOEN, LAGUNEN ETA ALZHEIMERRA EDO BESTE DEMENTZIAREN BAT DUTEN PERTSONEN ELKARTEA

ASOCIACION DE FAMILIARES, AMIGOS Y PERSONAS CON ALZHEIMER U OTRAS DEMENCIAS DE GIPUZKOA

ESTATUTOAK

1. artikulua.

Donostiako "ASOCIACIÓN DE FAMILIARES, AMIGOS Y PERSONAS CON ALZHEIMER Y OTRAS DEMENCIAS DE GIPUZKOA / GIPUZKOAKO SENITARTEKOEN, LAGUNEN ETA ALZHEIMERRA EDO BESTE DEMENTZIARENBAT DUTEN PERTSONEN ELKARTEA" (laburtuta AFAGI) irabazi-asmorik gabeko elkartearen (erregistro-zenbakia: AS/G/2969/1991, 1991ko azaroaren 19an erregistratua) Estatutu hauek martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta Elkarteei buruzko Eusko Jaurlaritzaren 3/88 Legean ezarritakoarekin bat etorritz aldatu dira, 2007ko martxoaren 19an egindako Ohiz Kanpoko Batzar Orokorraren erabakiz.

Irabazi-asmorik gabeko Elkarte hori adierazitako Elkarteen Lege horretako arauak, Estatutu hauek (betiere Legearekin kontraesanean ez badaude), haren gobernu-organoek baliozkotasunez hartutako erabakiek (betiere Legearen eta/edo Estatutuen kontrakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onartzen dituen arauzko xedapenek (ordezkoak izango dira soilik) araupetuko dute.

BETE NAHI DITUZTEN HELBURUAK

2. artikulua.

Honako hauek dira Elkartearen helburuak:

a) Alzheimerra edo bestelako dementziak dituzten pertsonen eskubideei buruzko zabalkundea eta sensibilizazioa sustatzea eta bultzatzea, baita haien autonomia eta pertsona ardatz duten arreta integraleko ereduak sustatzea ere.

b) Alzheimerra edo bestelako dementziak dituzten pertsonen, haien senitartekoen eta zaintzaileen premietara egokitutako baliabide eta zerbitzuak sor daitezen sustatzea.

c) Alzheimerren gaixotasuna dutenen senitartekoei laguntza psikologikoa, morala eta beste edozein motatakoa ematea, gaixoen laguntza erraztu eta hobetzeko, euren bizi-kalitatea ahalik eta gehien hobetzeko.

d) Gaixoen familiei aholku ematea alderdi legal, soziologiko, ekonomiko eta asistentzialei dagokienez.

e) Prestakuntza-programak sustatzea eta garatzea, batik bat, Alzheimerra edo bestelako dementziak dituzten pertsonen, haien senitartekoei eta horrelako patologiek lan egiten duten zainzaile boluntario eta profesionalei zuzenduta, interes eta helburu berdinak dituzten beste erakunde batzuekin lankidetzan ala ez.

f) Gaixoen bizi-kalitatea hobetzeko terapiak sustatzea eta garatzea, senitartekoen atsedean hartzeko jarduerak, Alzheimerrekin eta bestelako dementziekin lotutako zabalkunde-proiektuak, herritarrei, oro har, zuzendutakoak, problematika horren gainean sentsibilizatzeko.

g) Gaixotasunaren diagnostikoari eta terapiari buruzko aipamena egiten duen oro komunikabideetan sustatzea eta hedatzea, laguntza egokia emateko xedez.

h) Gaixotasunaren eraginari, bilakaera terapeutikoari eta etiologia posibleari buruzko azterlanak bultzatzea.

i) Dementziaren esparruko ikerketa eta berrikuntza biomedikoari bultzada ematen laguntzea, inplikaturako agenteekin lankidetzan jardunez.

j) Dementziaren esparruko ikerketa eta berrikuntza sozialari bultzada ematen laguntzea, inplikaturako agenteekin lankidetzan jardunez eta, salbuespen moduan, Elkartearen helburuetarako estrategikotzat jotzen diren proiektuen kudeaketan parte hartzeko aukera aztertuta.

k) Alzheimerren edo bestelako dementzien ondorioak pairatzen dituzten familien eskubideei buruzko zabalkundea eta sentsibilizazioa sustatzea eta bultzatzea.

l) Alzheimerren edo bestelako dementzien ondorioak pairatzen dituzten familien eskubideei buruzko zabalkundea eta sentsibilizazioa sustatzea eta bultzatzea.

m) Gaixotasuna aztertzen duten erakunde eta elkarteekin beharrezko harremanak izatea, gai horretan gertatzen diren aurrerapen zientifikoekin berri izateko eta, horrela, gaixoen senitartekoei informatu ahal izateko.

n) Belaunaldiarteko elkartasuna eta lankidetzaren sortzailea lortzeko zeharkako lan-dinamikak garatzea.

o) Esparru honetan genero-berdintasuna eta iraganaren erreparazioa lortzeko zeharkako lan-dinamikak garatzea.

Jardueren zerrenda hori adierazgarria baino ez da, ez du ezer mugatzen. Kudeaketa Batzordeak noiznahi erabaki dezake beste jarduerak batzuk egitea, Elkartearen helburuak betetzeko egokiak direla iritziz gero.

Xedeak garatzearren, Elkarrekin lankidetzaren akordioak egin ditzake estatutu hauetan ezarritako helburuekin lotura duten pertsona fisiko edo juridiko, erakunde eta elkarte publiko nahiz pribatuekin.

Xedeak garatzearen, Elkartearen jardueretan boluntarioek parte hartzea sustatuko da.

EGOITZA SOZIALA

3. artikulua.

Elkarte honen egoitza nagusia honako helbide honetan egongo da: Resurrección María de Azkue kalea, 32 zk. - Behe-solairua, Donostia.

Elkarteak beste lokal batzuk izan ditzake Gipuzkoako Lurraldean, betiere Kudeaketa Batzordeak hala erabakitzen badu.

Helbide sozialaren eta Elkarteak dauzkan gainerako lokalen lekualdatzeak Kudeaketa Batzordeak erabakiko ditu, eta hark jakinaraziko dio Elkarteen Erregistroari zein den helbide berria.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

4. artikulua.

Batez ere Gipuzkoako Lurralde Historikoaren eremuan garatuko ditu bere eginkizunak.

5. artikulua.

"AFAGI" izeneko elkarte izaera iraunkorarekin eratzen da, eta Ezohiko Batzar Orokorrak horretarako hartutako erabaki bidez, VI. kapituluan ezarritakoaren arabera edo Legeetan aurreikusitako arazoaren batengatik bakarrik desegin ahal izango da.

BIGARREN KAPITULUA

GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK

6. artikulua.

Kide anitzeko organo hauek dira Elkartea gobernatzeko eta administratzeko ardura izango dutenak:

- Bazkideen Batzar Orokorra, organo gorena.
- Kudeaketa Batzordea, kide anitzeko organoa eta zuzendaritza iraunkorra izango duena.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua.

Batzar Orokorra bazkide guztiek osatuko dute, eta bertan euren borondatea adieraz dezakete. Ohiko eta ezohiko bilkuratan bilduko da.

8. artikulua.

Ohiko bilkuran deitu beharko da Batzar Orokorra, gutxienez urtean behin, lehen hiruhilekoan, Elkartearen jarduteko plan orokorra, aurreko urteko gastuei eta diru-sarrerei dagokien kontuen egoera-orria eta hurrengo ekitaldiaren aurrekontua onartzeko, baita Kudeaketa Batzordearen kudeaketa ere, zeinak beti Batzarraren norabideen arabera eta haren kontrolpean jardun beharko duen.

9. artikulua.

Aurreko artikuluan xedatutakoa alde batera utzi gabe, Batzar Orokorraren eskumenekoak dira honako hauei buruzko erabakiak:

1. Elkartearen Estatutuak eraldatzea eta aldatzea, hurrengo artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
2. Kudeaketa Batzordea aukeratzea.
3. Elkartea desegitea, hala badagokio.
4. Beste Elkarre batzuekin federatzea eta konfederatzea, edo horietakoren bat uztea.

10. artikulua.

Ezohiko bilkuran bilduko da Batzar Orokorra Kudeaketa Batzordeak horrela erabakitzen duenean, dela bere ekimenez, dela bazkideen 1/10ek eskatzen dutelako, bileraren arrazoiak eta helburua adierazita, eta betiere honako gai hauek aztertu eta horiei buruz erabakitzeko:

- Estatutuen aldaketa.
- Elkartea desegitea.

KUDEAKETA BATZORDEA

11. artikulua.

Kudeaketa Batzordea presidenteak, presidenteordeak, idazkariak, diruzainak eta gutxienez ere bokal batek eta gehienez ere hamar bokalek osatuko dute. Nahitaez, presidente eta presidenteorde karguak Alzheimerria duten gaixoen senitartekoak diren edo izan diren bazkideek beteko dituzte.

Kudeaketa Batzarreko $\frac{3}{4}$ a gutxienez bazkideak diren senitartekoentzako eta edozein demenzia duten pertsonentzako erreserbatua egongo da.

12. artikulua.

Kudeaketa Batzordea osatzen duten karguak Batzar Orokorra aukeratuko ditu, bokalak salbu; Kudeaketa Batzordeko kideek aukeratuko dituzte bokalak. Lau urteko iraupena izango dute, haren esanbidezko errebokazioa salbu, eta berriz ere hautatuak izan daitezke.

13. artikulua.

Kudeaketa Batzordeko kide izateko honako baldintza hauek bete beharko dira:

1. Estatutuetan aurreikusita dagoen moduan izendatua izatea.
2. Erakundeko bazkide izatea.

3. Adin-nagusia edo emantzipatutako adingabea izatea, eta eskubide zibil guztiak baliatzeko aukera izatea.

14. artikulua.

Kudeaketa Batzordeko kideek honako kasu hauetan utzi beharko dute kargua:

- a) Agintaldia amaitu delako.
- b) Kargudunak dimititu duelako.
- c) Bazkide izateari utzi diolako edo kargua betetzea galarazten dion zerbait gertatu delako.
- d) Batzar Orokorrak erabakitako errebokazioa, Estatutu hauen 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuta.
- e) Karguduna hiltzen denean.

Kargudunek kargua uzten badute a) atalean jaso den arrazoiagatik, Kudeaketa Batzordeko kideek ez diote beren funtzioak garatzeari utziko lehenengo Batzar Orokorra egin arte, orduan aukeratuko baitira kargudun berriak.

Artikuluko b), c), d) eta e) puntuetako kasuak gertatzen badira, Kudeaketa Batzordeak berak beteko du hutsik dagoen kargua behin behineko izendapen bat eginez. Batzorde Orokorreko bilkuran erabakiko da kargu-izendapen hori berretsi edo errebokatu egingo den, eta, errebokatu egiten bada, kargua beteko duen pertsona aukeratuko da.

15. artikulua.

Hauek dira Kudeaketa Batzordearen egitekoak:

1. Elkartearen kudeaketa arrunta zuzentzea, Batzorde Orokorraren jarraibideak oinarri hartuta eta haren kontrolpean.
2. Batzar Orokorrari aurreko urteko jarduera-memoria eta hurrengo urterako programa aurkeztea, onar ditzan.
3. Batzar Orokorrari aurreko urteko kontuen egoera-orria eta hurrengo urterako aurrekontu ekonomikoa aurkeztea, onar ditzan.
4. Batzar Orokorreko gai zerrenda egitea eta ohiko nahiz ezohiko Batzar Orokorretarako deialdiak erabakitzea.
5. Bazkideek egin ditzaketen proposamen eta iradokizunei arreta eskaintzea, eta hori egiteko beharrezkoak diren neurriak hartzea.
6. Beharrezkoak diren kudeaketak egitea, diru-laguntza publikoak eta bestelako laguntzak lortzeko, baita lokalen erabilera ere, elkarbizitzarako eta komunikaziorako leku egokia izateko.
7. Batzorde Orokorrari propio esleitu gabeko beste edozein.

16. artikulua.

Presidenteak horrela erabakitzen duen orotan egingo ditu bilkurak Kudeaketa Batzordeak, edo presidenteordeak erabakitzen duenean, hala badagokio, dela ekimen propioz, dela Batzordeko edozein kidek eskatuta.

Kudeaketa Batzordearen deialdia presidenteak egingo du, eta gutxienez ere hilean behin bilduko da ohiko bilkuran.

Kudeaketa Batzordearen erabakiak baliozkoak izango dira pertsona bertaratuen botoen gehiengoa aldekoa bada. Beharrezkoa izango da, bidenabar, batzordekideen erdia bileran egotea.

Idazkariak bilkuren Akta idatziko du, eta akta hori dagokion euskarri informatikoan artxibatuko da.

PERTSONA BAKARREKO ORGANOAK

Presidentea

17. artikulua.

Elkarteko presidentea bere gain hartuko du elkartearen legezko ordezkari, eta Kudeaketa Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak betearaziko ditu. Bestalde, Elkarteko presidentea Kudeaketa Batzordeko eta Batzar Orokorreko presidente izango da ere.

18. artikulua.

Presidenteari egokituko zaizkio Kudeaketa Batzordeari edo Batzar Orokorrari propio gorde gabeko ahalmen guztiak, eta batez ere honako hauek:

1. Kudeaketa Batzordeak eta Batzar Orokorrak egiten dituzten bilkuretarako deialdia egitea eta bilkurak bukatutzat ematea, Batzordeko eta Batzarreko eztabaidak gidatzea, eta bozketan berdinketarik balego kalitatezko botoarekin erabakitzea.
2. Kudeaketa Batzordeari elkartearen jardura-plana proposatzea, elkartearen zereginak bultzatuz eta zuzenduz.
3. Baliozki erabaki diren ordainketak agintzea.

PRESIDENTEORDEA

19. artikulua.

Presidenteordeak laguntza eskainiko dio presidenteari, eta presidentea ezin badu aldi batez bere kargua bete presidenteordeak hartuko du haren lekua. Horrez gain, presidenteak eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak egokituko zaizkio.

IDAZKARIA

20. artikulua.

Idazkariari dagokio, zehazki, Akten Erregistroa zaindu eta idaztea.

Horrez gain, Elkartei buruz indarrean dauden lege-xedapenak betetzen direla zainduko du, Erakundearen dokumentazio ofiziala zainduz, liburu eta artxibo sozialen edukia egiaztatuz, eta agintaritza eskuduna jakinaren gainean jarriz Kudeaketa Batzordeak izendatzeari eta Elkartearen gizarte helbidea aldatzeari dagokionez.

DIRUZAINA

21. artikulua.

Diruzainak egin diren diru-sarrera eta ordainketen berri emango du, diru-sarreraren eta gastuen urteko aurrekontua formalizatuko du, baita aurreko urteko kontuen egoera-orria ere, Kudeaketa Batzordeari aurkeztuko diona eta, azken horrek, Batzar Orokorrari, onar dezan.

BOKALAK

22. artikulua.

Kudeaketa Batzordeak kasu bakoitzean esleitzen dizkien zereginak beteko dituzte bokalek.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARTZEKO PROZEDURA

23. artikulua.

Elkartean parte hartu ahal izango dute bere helburuekiko interesa duten Alzheimerria edo beste dementzia duten pertsonak berak, adin nagusikoek eta adingabe emantzipatuak. Bazkide berrien onarpena Kudeaketa Batzordearen alde aurreko erabakiaren ondoren egingo da.

24. artikulua.

Elkarteko kide izan nahi dutenek, presidenteari aurkeztuko diote eskaria idatziz, eta presidenteak Kudeaketa Batzordeari jakinaraziko dio, eta azken horrek hartuko du onartzeko edo ez onartzeko erabakia; gorako errekurtoa jarri ahal izango da Batzar Orokorraren aurrean.

25. artikulua.

Honako honetarako eskubidea du bazkide orok:

1. Elkarteen Legearen eta Estatutuen aukako erabaki eta ekintzak aurka ditzakete egutegiko berrogei eguneko epean, demanda-jartzaileak aurkatzen duen erabakiaren edukia jakin duenetik edo jakiteko aukera izan duenetik kontatzen hasita.
2. Edozein unetan ere, diru-sarrera eta gastuen kontuen egoera-orria eta elkartearen jardueraren garapena zein den jakiteko eskubidea.
3. Hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea baliatzea Batzar Orokorratan; horretarako beste kideren bati eman ahal izango dio bere ordezkaritza.
4. Elkarteko zuzendaritza-organoetan parte hartzea, estatutu hauei jarraikiz; hautesle eta hautagai izango da horietan.
5. Ekintza sozial kolektiboetan parte hartzea, eta bazkideen erabilera komuneko elementuak erabiltzea, Kudeaketa Batzordeak ezartzen duen moduan.
6. Idatziz entzuna izatea, diziplina-neurriak hartu baino lehen, eta horiek eragin dituzten arrazoien gaineko informazioa jasotzea. Bazkide-betebeharrak ez betetzean soilik oinarrituko dira horiek.

26. artikulua.

Honako hauek dira bazkideen betebeharrak:

1. Elkartearen helburuak lortzeko laguntza aktiboa ematea.
2. Gastuei eusten laguntzea, Kudeaketa Batzordeak ezartzen dituen kuoten ordainketarekin.
3. Egungo Estatutuak eta Elkartearen organo zuzendariek baliozkotasunez hartutako erabakiak onartu eta betetzea.

ZEHAPEN ARAUBIDEA

27. artikulua.

Kudeaketa Batzordeak bazkideak zigortu ahalko ditu Estatutuak edo Batzar Orokorraren edo Kudeaketa Batzordearen erabakiak behin eta berriz urratzeagatik.

Ezarritako zehapenak izan daitezke eskubideak etetetik hasi, 15 egunetik hilabete batera bitarte, eta behin betiko banantzera arte.

Horretarako, ikerketa bat hasteko erabakia har dezake presidenteak, zehatzeko modukoak diren jokabideak argitzeko. Jardunak Idazkaritzak eramango ditu aurrera, eta Kudeaketa Batzordeari proposatuko dio dagozkion neurriak hartzea. Kudeaketa Batzordeak izango du zehapenak jartzeko ahalmena, eta interesdunari esateko zer duen entzun beharko dio aurretik.

Erabaki horren aurka —betiere arrazoitua behar duela izan jakinda— errekurtsua jarri ahal izango da Batzar Orokorrean, 25.1 artikuluan aurreikusita dagoen ekintzen egikaritzea alde batera utzi gabe.

BAZKIDE IZAERA HARTZEA ETA GALTZEA

28. artikulua.

Honako egoera hauetan galduko da bazkide-izaera:

1. Heriotzagatik.
2. Borondatezko banantzea.
3. Zehapenagatiko banantzea, Kudeaketa Batzordeak erabakia, honako egoera hauetako bat gertatzen bada: Estatutuetatik eta Batzar Orokorrek eta Kudeaketa Batzordeak baliozkotasunez hartutako erabakietatik datozen eginbeharren ez-betetze larri eta behin eta berriro gertatua.

29. artikulua.

Bazkideren bat 28.3 artikuluan araututako kasuren batek eraginpean hartzen badu, Presidentziak zenbait aldez aurreko izapide egitea agindu ahal izango dio Idazkaritzari, dagokion informazioa lortze aldera, eta horren arabera, Presidentziak jardunak artxibatzea edo zehapen-espedienteari hasiera ematea agindu ahal izango du.

30. artikulua.

Zehapen-espedientea irekitzen bada 28.3 artikuluan araututako edozein kasurengatik, idazkariak, aurretik gertakari guztiak egiaztatuta, idatzi bat igorriko dio interesdunari, eta egotzi zaizkion kargu guztiak adieraziko dira bertan. Interesdunak erantzuteko

aukera izango du 15 eguneko epean, eta egoki irizten duen guztia argudiatu ahal izango du bere defentsan. Epe hori pasata, edonola ere, Kudeaketa Batzordeko lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da gai hori, eta batzordeak hartuko du dagokion erabakia, hura osatzen duten kideen erdia gehi bateko quorumarekin.

Banantze-erabakia interesdunari jakinaraziko zaio, eta egingo den lehenengo Ezohiko Batzar Orokorrean horren aurkako errekurtsua aurkeztu ahal izango duela jakinaraziko zaio. Hiru hilabeteko epean Batzar Orokorrerako deialdirik egiten ez bada, horretarako bakarrik egin beharko da deialdia. Bitartean, Kudeaketa Batzordeak erruztatuari bazkide gisa dituen eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Kudeaketa Batzordeko kide bada, karguaren jarduna etetea dekretatu beharko du.

Banantze-espeditatea Batzar Orokorrari aurkeztzen bazaio, horren laburpena idatziko du idazkariak, Kudeaketa Batzordeak erruztatuak aurkeztutako idazkia aurkez diezaion Batzar Orokorrari, gertaeren berri behar bezala emanaz, Batzarrak dagokion erabakia har dezan.

31. artikulua.

Banantze-erabakia, beti arrazoitua izango dena, interesdunari helaraziko zaio, eta horrek errekurtsua aurkeztu ahal izango du auzitegietan, dagokion eskubidea baliatuz, banantzea legearen edo Estatutuen kontrakoa dela irizten badu.

32. artikulua.

Bazkideari Elkartetik bananduta dagoela jakinaraztean, haren borondatez edo zigorraren ondorioz, Elkartearikiko betebeharrak bete ditzan eskatuko zaio, baldin eta hark baten bat bete gabe badu.

LAUGARREN KAPITULUA

FUNDAZIO ONDAREA ETA AURREKONTU ERREGIMENA

33. artikulua.

Elkartearen ondare soziala bederatzi mila laurehun euro (9.400) euro da.

34. artikulua.

Elkartek honako baliabide ekonomiko hauek aurreikusiko ditu jarduera sozialak gauzatzeko:

1. Kudeaketa Batzordeak adierazten dituen sarrera-kuotak.
2. Erabakitzen dituen aldizkako kuotak.
3. Dagozkion ondasunen eta eskubideen produktuak, baita legalki jaso ditzakeen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak ere.
4. Kudeaketa Batzordeak egitea erabaki duen legezko jardueren bidez Elkartek eskuratutako diru-sarrerak, betiere estatutu-xedeen barnean.

Elkarte- eta ekonomia-ekitaldia urtekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da.

Elkarteak eskuratutako mozkinak, jarduera ekonomikoak gauzatzetik sortuak, zerbitzuak ematetik barne, horren xedeak betetzeko soilik erabiliko dira. Inola ere ez dira banatuko bazkideen artean, ez horien ezkontideen edo horiekin antzeko afektibitate-harremanean bizi diren pertsonen artean, ezta horien sendikoen artean ere, eta ez zaizkie dohainik emango irabazi-asmoak dituzten pertsona fisikoei ez juridikoei.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

35. artikulua.

Kudeaketa Batzordearen ekimenez aldatu ahal izango dira Estatutuak, edo Batzordearen beraren erabakiz, erregistratuta dauden bazkideen % 10ek hala eskatzen dutenean. Edozein kasutan ere, Kudeaketa Batzordeak batzorde txostengile bat osatuko du, hiru bazkidek osatutakoa, aldaketa-proiektuaren idazkuntza egin dezan, Batzordeak emandako norabideei jarraikiz, eta proiektuak noizko amaituta egon behar duen adieraziko du.

36. artikulua.

Behin aldaketa-proiektua adierazitako epean idatzi denean, egingo den lehenengo Kudeaketa Batzordeko gai-zerrendan sartuko du presidenteak. Kudeaketa Batzordeari dagokio hori onartzea, edo, hala badagokio, batzorde txostengileari itzultzea berriz azter dezan.

Onartzen den unean, Kudeaketa Batzordeak egiten den hurrengo Ezohiko Batzar Orokorraren Gai Zerrendaren barnean hartzea erabakiko du, edo horretarako Batzarra deitzea erabakiko du.

37. artikulua.

Batzar Orokorraren deialdiarekin batera interesatuta dauden bazkideek Estatutuen aldaketaren testua edukitzeko gonbidapena gaineratuko da, bazkideek egokitzat iritzitako zuzenketak helarazi diezazkieten Idazkaritzari, eta horien berri emango zaio Batzar Orokorrari, betiere bilkura egin baino zortzi egun lehenago Idazkaritzaren esku badaude.

Zuzenketak banaka edo kolektiboki formulatu ahal izango dira, idatziz aurkeztuko dira, eta beste testu alternatibo bat hartuko dute barnean.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ONDARE SOZIALA APLIKATZEA

38. artikulua.

Elkartea desegingo da:

1. Bazkideen borondatez, horretarako deitutako Batzar Orokorrean adierazitakoa, bertaratutakoen gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin.
2. Kode Zibilaren 39. artikuluan zehaztutako arrazoiengatik.

3. Epai judizialarengatik.

39. artikulua.

Elkartea desegiten bada, desegiteko erabakia hartu duen Batzar Orokorrak Kudeaketa Batzordea Batzorde Likidatzaile izendatuko du, eta hori egingo da dauden funtsen arduradun.

Behin bazkideekiko eta hirugarrenekiko betebeharrak sozialak bete ondoren, sobratzen den ondare soziala, halakorik balego, gaixo psikikoen arretan lan egiten duen irabazi-asmorik gabeko erakunde bati entregatuko zaio.

Egiaztatzen da Donostian 2017ko apirilaren 25ean

Presidentea

Sin.: Koldobika Aulestia Urrutia

Idazkaria

Sin.: Félix Peña Antón